



*Bizkaiko Indarkeria
Matxistaren Behatokia
Observatorio de la **Violencia**
Machista en Bizkaia*

TXOSTENA

**EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA
MATXISTAKO EGOERETAN**

EMANDAKO LAGUNTZAREN ZIFRAK

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAN

OSASUNAREN ARLOA

2024



4. kapitulua.

OSASUN-ESPARRUA

Testuingurua eta egoera orokorra

Osasun-zerbitzuetan, Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoa da Estatuko oinarritzko legeria exekutatzea, osasun publikoko eta osasun-laguntzako legegintza garatzea, eta autonomia-estatutuan bere gain hartutako osasun-zerbitzu guztiak antolatu eta administratzea; izan ere, Lurralde Historikoen Legeak (LHL) ez die eskumenik esleitzen lurralde historikoetako foru-organismoak.

Osasun-arretaren eremua funtsezko arloa da hautemateko eta arreta emateko, bai eta biktima diren emakumeen osasun integrala hobetzeko ere. Otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak **–Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legea**, 1/2022 Legearen 1. artikulua ezartzen duenaren arabera– honela dio 59. artikuluan 1. atalean: *“Euskadiko Osasun Sistemak emakumeen aurkako edozein indarkeria-motaren biktima guztiei bermatu behar die osasuna babesteko eta osasun-arreta izateko duten eskubidea; barnean sartzen da indarkeria-egoerak detektatzea eta biktimen egoerari jarraipena egitea, guztiz oneratzeko den arte, jasandako indarkeriatik datozen ondorioei edo sintomatologiari dagokienez, edozein dela ere biktimaren administrazio-egoera”*. Gainera, artikuluko 3. atalean ezartzen denez, *“arreta psikologiko espezializatua bermatuko die emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktima izan diren guztiei, arlo soziosanitarioan eta genero-ikuspegian oinarrituta”*.

EAEn emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei ematen zaien arreta koordinatzeko erakundearen arteko III. Akordioan jasotzen denez, *“gaur egun, Osakidetzan hau da erreferentziazko protokoloa: 2019ko Jarduketako-gida osasun-arloko profesionalentzat, genero-indarkeriaren eta sexu-erasoen aurrean Euskadin nola jardun jakiteko”*. Gida honen helburua da *“osasun-arloko langileak sentsibilizatzea, gure testuinguruan genero-indarkeriako kasuak goiz hautematen inplikatzeko, eta esku-hartze profesionaleko irizpideak homogeneizatzen lagunduko duen lan-tresna bat ezartzea osasun-arlotik”*.

Kapitulu honetan, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak emandako zenbait datu aurkezten dira. Zehazki, 2023an eta 2024an Bizkaiko osasun-barrutiko **Ospitaleko eta Larrialdietako Arretan** eta **Lehen Mailako Arretan** (LMA) hautemandako genero-indarkeriako kasuei buruzkoak. **14 urte eta gehiagoko emakumeen** kasuak dira.

4.1. OSPITALEKO ARRETA

2021etik aurrera, kapitulu honetan erakusten diren datuek, ospitaleetako Larrialdi Zerbitzuetan hautemandako kasuei buruzko informazioa emateaz gain, Osakidetza – Euskal Osasun Zerbitzuaren Bizkaiko ospitaleetako beste kontsulta batzuetan artatutako kasuak ere jasotzen dituzte.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak emandako datuen azterketak erakusten duenez, 2023an antzemandako kasuen kopurua nabarmen handitu bazen ere, 2024an berriz ere jaitsi da hautemate-bolumena. Azken urtean, ospitale-zerbitzuek 547 kasu hauteman zituzten Bizkaian. 2023ko datuekin alderatuta, hautemate-bolumena % 14,5 jaitsi zen, hau da, aurreko ekitaldian baino 93 kasu gutxiago hauteman ziren.

Aurreko ekitaldietan gertatzen den bezala, nabarmentzekoa da Bizkaian artatutako kasuek EAE osoan duten pisua: 2024an, kasuen % 64,7 Bizkaian hauteman ziren.

Ospitale-eremuan antzemandako kasu gehienak Larrialdi Zerbitzuetan artatutako kasuei dagozkie (% 90,9); % 4,9 Osasun Mentaleko Sarean arreta emandakoei dagokie, eta % 4,2 ospitaleko beste zerbitzu batzuetan, hala nola kanpo-kontsultetan, artatutakoei.

Larrialdi Zerbitzuetan hautemandako kasuei erreparatuz gero, hautemate-bolumena % 18,3 jaitsi zen aurreko ekitaldiarekin alderatuta. 111 kasu gutxiago erregistratu ziren, zehazki.

4.1 taula. Larrialdietan hautemandako kasuak, osasun-erakundearen arabera.
Bizkaia. 2023-2024

	2023	2024	Δ
Barakaldo-Sestaoko ESla	119	102	-14,3
Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESla	90	68	-24,4
Barrualde-Galdakaoko ESla	88	44	-50,0
Bilbo-Basurtuko ESla	277	255	-7,9
Uribeko ESla	30	27	-10,0
GUZTIRA	608*	497**	-18,3

Oharra: ESI: Erakunde Sanitario Integratua. Barakaldo-Sestaoko ESla San Eloy Ospitalea barne hartzen du; Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESla Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea barne hartzen du; Barrualde-Galdakaoko ESla Gernika-Lumoko Ospitalea eta Galdakao-Usansoloko Ospitalea barne hartzen ditu; Bilbo-Basurtuko ESla Basurtuko Unibertsitate Ospitalea barne hartzen du; Uribeko ESla Urdulizko Alfredo Espinosa Ospitalea barne hartzen du. Santa Marina Ospitalea ez dago ESI baten barruan.

*Lau kasu Santa Marina Ospitalean hauteman ziren (erakunde sanitario integratu baten barruan ez dagoen ospitalea).

**Kasu bat Osasun Mentaleko Sareko larrialdi-zerbitzuek hauteman zuten.

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta. Osasun Saila.

Osasun-erakundeei erreparatuta, beherakada orokorra ikusten da erakunde guztietan. Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, Barrualde-Galdakaoko ESlan kasuen erdiak artatu dira (2023an baino 44 gutxiago). Bilbo-Basurtuko eta Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESletan 22 kasu gutxiago artatu dira, eta Barakaldo-Sestaoko ESlan 17 gutxiago. Uribeke ESlak izan du aldaketa gutxien: 2023an baino hiru kasu gutxiago artatu dira.

Osasun-erakundeen arabera kasu-banaketak erakusten duenez, Bilbo-Basurtuko ESlak dauka ehunekorik handiena, gainerako erakundeekin alderatuta: han artatzen dira hautemandako kasu guztien erdiak.


4.2 taula. Larrialdietan hautemandako kasuen banaketa (%), osasun-erakundearen arabera. Bizkaia. 2013 eta 2024 urteen arteko bilakaera

	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Barakaldo-Sestaoko ESl	13,8	22,5	19,1	21,0	25,6	14,2	15,1	15,5	18,4	19,5	19,6	20,5
Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESl	9,5	12,0	6,7	8,0	8,4	9,4	9,4	12,2	19,1	18,3	14,8	13,7
Barrualde-Galdakaoko ESl	7,4	4,7	7,5	7,0	8,1	7,4	9,7	11,8	11,5	10,7	14,5	8,9
Bilbo-Basurtuko ESl	69,3	60,8	66,7	64,0	55,6	61,0	59,8	53,9	44,1	46,6	45,6	51,3
Uribeke ESl*	-	-	-	-	2,3	8,0	5,9	6,6	6,7	4,9	4,9	5,4

*Uribeke ESlko ospitaleak 2017ko maiatzean ireki zuen Larrialdi Zerbitzua.

Oharra: ESI: Erakunde Sanitario Integratua. Barakaldo-Sestaoko ESlak San Eloy Ospitalea barne hartzen du; Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESlak Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea barne hartzen du; Barrualde-Galdakaoko ESlak Gernika-Lumoko Ospitalea eta Galdakao-Usansoloko Ospitalea barne hartzen ditu; Bilbo-Basurtuko ESlak Basurtuko Unibertsitate Ospitalea barne hartzen du; Uribeke ESlak Urdulizko Alfredo Espinosa Ospitalea barne hartzen du.

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta. Osasun Saila.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta. Osasun Saila.

Adina

2024an, ospitaleetako larrialdi-eremuan hautemandako kasuetako asko **40 urte baino gutxiagoko emakumeei dagozkie (% 64,6)**: 14 eta 19 urte arteko gazteei kasuen % 3,4 dagozkie; 20 eta 29 urte arteko emakumeei kasuen % 27,6 dagozkie, eta 30 eta 39 urte arteko emakumeei, aldiz, kasuen % 33,6.

Arretarako beste eremu batzuetan gertatzen den bezala, larrialdietako osasun-erregistroek 50 urtetik gorako emakumeen presentzia urria erakusten dute, gainerako adin-taldeekin alderatuta: adin horretako emakumeek pisu handia dute biztanleria osoan (% 48,6), baina Bizkaiko Ospitaleetako Larrialdi Zerbitzuen bidez hautemandako kasuen % 11,9 dira soilik adin horretakoak.

Adin-taldeen arabera, eta aurreko urtearekin alderatuta, beherakada orokorra ikusten da adin-tarte guztietan, 60 eta 69 urte bitartekoen kasuan izan ezik; horietan lau kasu gehiago erregistratu dira. 2023. urtearekin alderatuta, alderik esanguratsuenak emakume gazteenetan eta adin nagusikoenetan daude: 14 eta 19 urte bitartekoen tartean, % 51,4 gutxiago hauteman dira (aurreko urtean baino 18 kasu gutxiago), eta 70 urte edo gehiagoko emakumeen kasuan, jaitsiera % 70ekoa izan da (14 kasu gutxiago zenbatu dira).

4.3 taula. Larrialdietan hautemandako kasuak, adinaren arabera. Bizkaia. 2023-2024


	2023	2024	Δ
14-19 urte	35	17	-51,4
20-29 urte	163	137	-16,0
30-39 urte	184	167	-9,2
40-49 urte	135	117	-13,3
50-59 urte	60	38	-36,7
60-69 urte	11	15	36,4
70 urte edo gehiago	20	6	-70,0
GUZTIRA	608	497	-18,3

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta. Osasun Saila.

Talde bakoitzeko kasu-kopurua eta adin horietako emakumeen guztizko biztanleria alderatuta, ikus daiteke 20-39 urte arteko emakumeek dituztela biktima-tasarik altuenak. Zehazki, 20-29 urteko adin-tartean 25,0 kasu daude 10.000 emakumeko, eta 30-39 urteko adin-tartean, 27,3 kasu 10.000 emakumeko.

40 urtetik aurrera, emakumeen adinak gora egin ahala, tasak behera egiten du etengabe, modu nabarmenean.

4.2 grafikoa. Larrialdietan detektatutako kasuak adin-taldeen arabera. 10.000 emakumeko tasa. Bizkaia. 2024



Oharra: Tasa kalkulatzeko, 14 urte edo gehiagoko emakumeak hartu dira kontuan, EINen 2024ko urtarilaren 1eko datuetan oinarrituta.

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta. Osasun Saila.

4.2. LEHEN MAILAKO ARRETA (LMA)

2024an, genero-indarkeriarekin lotutako 370 kasu hauteman ziren. Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, hautematea % 36,5 jaitsi zen, eta 213 kasu gutxiago zenbatu ziren.

EAE osoan 727 kasu hauteman ziren. Eremu honetan, Bizkaian artatutako kasuek EAE osoko datuetan duten pisua ez da ospitaleetako arretan bezain handia: lehen mailako arretan, Euskal Autonomia Erkidego osoan artatu diren kasuen % 50,9 Bizkaikoak dira.

Datuak osasun-erakundearen arabera bereiziz gero, eta aurreko ekitaldiarekin alderatuta, datuek erakusten dute ESI guztietan jaitsi dela emandako arreta. Jaitsiera nabarmenetako bat Barakaldo-Sestaoko ESIan ageri da: 2023an erregistratutako datuarekin alderatuta, ESI horretan emandako arreta % 73,5 jaitsi da (25 kasu gutxiago artatu dira). Osasun-erakunde horrek bederatzi kasu artatu ditu 2024an zehar, eta aztertutako epealdi osoko arreta zifrarik txikiena da hori.

4.4 taula. Lehen Mailako Arretan hautemandako kasuak, ESIaren arabera.
Bizkaia. 2023-2024

	2023	2024	Δ
Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIa	77	61	-20,8
Uribeko ESIa	108	67	-38,0
Barakaldo-Sestaoko ESIa	34	9	-73,5
Barrualde-Galdakaoko ESIa	239	159	-33,5
Bilbo-Basurtuko ESIa	125	74	-40,8
GUZTIRA	583	370	-36,5

Oharra: ESI: Erakunde Sanitario Integratua.

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta. Osasun Saila.

Larrialdi-eremuan gertatzen denaren kontra, azken urteetan **Barrualde-Galdakaoko ESIan** hauteman dira kasu gehien: 2024an, Bizkaiko Lehen Mailako Arretan hauteman ziren kasu guztien % 43 ESI horretan artatu ziren.


Kasuen bilakaera-azterketari esker, halaber, ikus daiteke 2020ra arte Bilbo-Basurtuko ESIa bazen ere hautemandako kasuen bolumenean bigarren erakundea –aldearekin–, azken urte hauetan, hiru erakundek antzeko proportzioak dituztela, Uribeko ESIaren eta Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIaren arreta-igoera dela eta: kasuen % 20 Bilbo-Basurtuko ESIan, kasuen % 18,1 Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIan, eta % 16,5 Uribeko ESIan.

4.5 taula. Lehen Mailako Arretan hautemandako kasuak (%), ESIaren arabera.
Bizkaia. 2013 eta 2024 urteen arteko bilakaera

	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Ezkerralde- Enkarterri- Gurutzetako ESla	5,3	6,7	3,0	5,0	10,6	9,7	9,2	12,2	17,7	16,6	13,2	16,5
Uribeko ESla	12,3	13,0	16,5	11,9	10,6	9,0	12,6	13,3	16,2	15,2	18,5	18,1
Barakaldo-Sestaoko ESla	9,4	11,8	11,9	9,4	11,0	6,8	5,5	7,1	5,1	4,3	5,8	2,4
Barrualde- Galdakaoko ESla	37,3	41,7	46,6	53,2	47,5	50,7	51,2	41,3	40,7	43,0	41,0	43,0
Bilbo-Basurtuko ESla	35,7	26,8	22,0	20,5	20,4	23,7	21,5	26,0	20,4	20,9	21,4	20,0

Oharra: ESI: Erakunde Sanitario Integratua.

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta. Osasun Saila.




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta. Osasun Saila.

10.000 emakumeko hauteman diren kasuen tasa

Erakunde Sanitario Integratu bakoitzean hautemandako kasuak eta gunehorietako emakumeen guztizko biztanleria lotzen baditugu, ikus daiteke Barrualde-Galdakaoko ESIan eta Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIan hauteman direla kasu gehien.

Hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, erakunde sanitario horiek lurralde osoko balioaren gainetik dagoen tasa daukate (6,1 kasu 10.000 emakumeko). Uribeko ESIak (5,8) Bizkaiko tasaren antzekoa dauka; bestalde, Bilbo-Basurtuko eta Barakaldo-Sestaoko ESIek dituzte tasarik baxuenak.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta. Osasun Saila.

Adina

Adin-taldeka, Lehen Mailako Arretan hautemandako kasuen % 55,4 **30 eta 49** urte arteko emakumeei dagozkie.

Aurreko ekitaldietako datuen azterketetan adierazi den moduan, beste baliabide batzuetan ez bezala, Lehen Mailako Arretan hautemandako kasuen adin-kurbak **50 urtetik gorako** emakumeak agerian jartzeko aukera ematen du, beste arreta-esparru batzuetan baino gehiago, osasun-arlokoak izan zein ez.

2024an, 50 urtetik gorako emakumeen kasu gutxiago hauteman badira ere, datuek adierazten dute haien presentzia handia dela oraindik ere eremu horretan, **kasuen % 20** direnez gero. Kontsulta horietan adin aurreratueneko kasuak ere agertzen dira, 70 urte eta gehiagokoak (% 4,6).

Datuak aurreko ekitaldian erregistratutakoekin alderatzean, ikusten da zifrek jaitsiera handia izan dutela adin-tarte guztietan. Ospitale-eremuan gertatzen den moduan, datuetan jaitsiera esanguratsuak daude emakume gazteenen eta adin aurreratuenekoen artean. Zehazki, 14 eta 19 urte bitarteko tartean % 68,8 kasu gutxiago hauteman dira (2023an baino 22 kasu gutxiago), eta 70 urte eta gehiagoko tartean, berriz, % 66,7ko jaitsiera izan da (aurreko urtean baino 34 kasu gutxiago).


4.6 taula. Lehen Mailako Arretan hautemandako kasuak, adinaren arabera.
Bizkaia. 2023-2024

	2023	2024	Δ
14-19 urte	32	10	-68,8
20-29 urte	107	81	-24,3
30-39 urte	147	99	-32,7
40-49 urte	135	106	-21,5
50-59 urte	75	39	-48,0
60-69 urte	36	18	-50,0
70 urte edo gehiago	51	17	-66,7
Guztira	583	370	-36,5

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta. Osasun Saila.

Lehen Mailako Arretan, biktimen tasak eta emakumeen guztizko biztanleria alderatuta, ikus daiteke **30-39 urte** arteko emakumeek daukatela **biktima-tasarik altuena** (16,2 kasu 10.000 emakumeko), eta, haien atzetik, 20-29 urte arteko emakumeek (14,8 kasu 10.000 emakumeko).

Ospitaleetako Larrialdi Zerbitzuetan gertatzen den bezala, Lehen Mailako Arretan ere tasak jaitsi egiten dira 40 urtetik aurrera.



Oharra: Tasa kalkulatzeko, 14 urte edo gehiagoko emakumeak hartu dira kontuan, EInen 2024ko urtarrilaren 1eko datuetan oinarrituta.

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta. Osasun Saila.



ERANSKINAK:

- Datuen taulak.
-



IV. Arloa: OSASUNEKOA

OSPITALEKO ARRETAREN DATUAK

1. taula. Ospitaleko arretan detektatutako genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen kasuak (≥ 14 urte) zerbitzuaren arabera. Bizkaia. 2024.

2. taula. Larrialdietan detektatutako genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen kasuak (≥ 14 urte). Bizkaia. 2024.

2.1. Erakunde Sanitario Integratuen (ESI) arabera

2.2. Adinaren arabera

LEHEN MAILAKO ARRETAREN DATUAK

3. taula. Lehen Mailako Arretan detektatutako genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen kasuak (≥ 14 urte). Bizkaia. 2024.

3.1. Erakunde Sanitario Integratuen (ESI) arabera

3.2. Adinaren arabera



IV. Arloa: OSASUNEKOA

I. OSPITALEKO ARRETAREN datuak

1. taula. Ospitaleko arretan detektatutako genero-indarkeriaren biktime diren emakumeen kasuak (≥ 14 urte) zerbitzuaren arabera. Bizkaia. 2024.

	2024
Larrialdiak	497
Osasun Mentaleko Sarea	27
Ospitaleko beste zerbitzu batzuk	23
GUZTIRA	547

Iturria: Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza.

2. taula. Larrialdietan detektatutako genero-indarkeriaren biktime diren emakumeen kasuak (≥ 14 urte). Bizkaia. 2024

2.1. Erakunde Sanitario Integratuen (ESI) arabera

ERAKUNDE SANITARIOAK	2024
Bilbao-Basurtuko ESI	255
Barakaldo-Sestaoko ESI	102
Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESI	68
Barrualde-Galdakaoko ESI	44
Uribeko ESI	27
GUZTIRA*	497

*Kasu bat Osasun Mentalaren Sarearen larrialdietan detektatu da.

Oharra: ESI: Erakunde Sanitario Integratua.

Iturria: Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza.

2.2. Adinaren arabera

ADIN - TALDEAK (URTEAK)	2024
14 eta 19 bitartean	17
20 eta 29 bitartean	137
30 eta 39 bitartean	167
40 eta 49 bitartean	117
50 eta 59 bitartean	38
60 eta 69 bitartean	15
70 eta gehiago	6
GUZTIRA	497

Iturria: Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza.



IV. Arloa: OSASUNEKOA

II. LEHEN MAILAKO ARRETAREN datuak

3. taula. Lehen Mailako Arretan detektatutako genero-indarkeriaren biktimen diren emakumeen kasuak (>=14 urte). Bizkaia. 2024.

3.1. Erakunde Sanitario Integratuen (ESI) arabera

ERAKUNDE SANITARIOAK	2024
Barrualde-Galdakaoko ESI	159
Bilbao-Basurtuko ESI	74
Uribeko ESI	67
Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESI	61
Barakaldo-Sestaoko ESI	9
GUZTIRA	370

Iturria: Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza.

3.2. Adinaren arabera

ADIN - TALDEAK (URTEAK)	2024
14 eta 19 bitartean	10
20 eta 29 bitartean	81
30 eta 39 bitartean	99
40 eta 49 bitartean	106
50 eta 59 bitartean	39
60 eta 69 bitartean	18
70 eta gehiago	17
GUZTIRA	370

Iturria: Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza.